

ELGERA

**ALAIA
DOMINGUEZ
ORTUONDO**

**“ASKOTAN
ESKATZEN DIDATE
TRUKUAK EGITEKO
ETA OSO GUSTURA
EGITEN DITUT”**





- 3 Bilboko euskalgintza
- 4 Elkarrizketa
- 6 Inkesta
- 7 Jarduerak
- 8 Erreportajea
- 10 Jarduerak
- 11 Literatura
- 12 Musika
- 13 Teknologia berriak
- 14 Ikuskizunak
- 15 Bitxikeriak
- 16 Agenda
- 17 Denborapasak

aurkibidea

ELGERA 8. ZK. apirila

- 18 Auzoak
- 20 Lanbide Heziketa
- 22 Kirola



Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Rekaldeberriko BHI, San Adriango BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Salesianos Deusto HLBIP, La Salle HLBIP, San Inazio BHI ikastetxea eta B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa. Koordinazioa: B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa.
Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 4.100. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com

Argazkiak: AEK-Korrika

Inoizko Korrikarik bilbotarrena

Martxoaren 19an abiatu zen Korrika 19 Urepeletik jai giro paregabea. 11 egunez Euskal Herriko herri eta hiriak zeharkatu ditu euskararen aldeko lasterketak eta hilaren 29, Bilbora heldu zen.

Goizean goiz Deustun euripean zein Areatzako helmuga eguzkitsuan, "zirrargarria" eta "hungigarria" izan ziren korrikalarien artean gehien errepikatu ziren

hitzak. Eta "historikoa" Korrika lehen aldiz Deustuko Erribera, Olabeaga, San Mames edota Atxurira heldu zelako. Benetan irudi ederrak utzi zizkigun Korrikak Bil-

bon: umeak eta adinekoak tipi-tapa, erraldoiak eta joaldunak arinarinka, lekukoa San Mameseko harmailan... Amaiera borobila izan du Korrika 19k, amaiera bilbotarra.



“Askotan eskatzen didate trukuak egiteko eta oso gustura egiten ditut”

SAN INAZIO BHI
Ariane San Miguel Saldaña eta
Olatz Orokieta Martinez

Alaia Dominguez Ortuondok 12 urte ditu, eta aldizkari batean magia ikastaro bat zegoela ikusi zuenetik jo eta su dabil magia-eskolan. Oso trebea da eskuekin eta nagusitzean antzokietan emanaldiak egin nahiko lituzke.





Nondik dator zure zaletasuna?

Txikia nintzenean mago bat ikusi nuen, horregatik magia egitea interesgarria izango zela pentsatu nuen. Egun batean, aldizkari bat irakurtzen ari nintzen bitartean magia tailer bat zegoela ikusi nuen, orduan bertan izena eman nuen. Gero, eskolan ikasturte osoa egitea pentsatu nuen.

Zure familiako norbaitek magia praktikatzen du?

Ez. Dena den, askotan eskatzen didate trukuak egiteko eta oso gustura egiten ditut. Gehienetan ondo ateratzen zaizkit, eta txarto ateratzen zaizkidanean ere, ondo pasatzen dugu. Etxekoek trukuak egiten laguntzen didate, baina gehienetan nik bakarrik egin ditzaket.

Nolako garrantzia dauka magia zure bizitzan?

Handia. Egunero ordu bat edo bi egoten naiz magia praktikatzen. Koaderno batean apuntatuta ditudan trukuak egiten ditut behin eta berriro.

Zein da zure magorik gogokoena?

Juan Tamariz eta Dani Daortiz oso gustuko ditut. Juan Tamarizek egiten duen truku bat da gehien gustatzen zaidana. Harrigarria da kartekin daukan trebetasuna!

Magoa izateko ezaugarriak dituzula uste duzu? Alegia, gaitasun bereziren bat duzula?

Esango nuke kartekin erraztasuna dudala. Eskuekin abilezia handia dudala esaten didate, eta magoa izateko gaitasun garrantzitsua da hori.

Nola egingo zenuke ume bati magia benetakoa dela erakusteko?

Nire zapiaren truku apartarekin konbentzitu nuke. Truku horretan zapi bat eskuan sartzen dut eta desagerrarazi egiten dut.

Magia truku arriskutsuak egiten ausar-

tuko zinateke?

Oraitxe bertan ez, baina heldua naizenean eta magiari buruz gehiago dakidanean gustatuko litzaidake.

Zure ezagunen bat zurekin joaten da magia-eskolara?

Pasa den urtean lagun batekin nindoan baina aurten bakarrik joaten naiz.

Gehienak helduak dira, baina nire adineko batzuk ere badaude. Bertan lagunak egiteko aukera izan dut.

Nagusia zarenean magiaren munduan segitu nahi duzu?

Bai. Batez ere antzokietan emanaldiak egitea gustatuko litzaidake, eta ogibidez magia irakaslea izatea ere ondo egongo litzateke.

Zure bizitzan magia truku bat erabili ahalko bazenu inguruko zer edo zer aldatzeko, zer aldatuko zenuke?

Zaila da galdera horri erantzutea. Beharbada munduan guztiok ondo bizitzeko ahaleginak egingo nituzke.



LA SALLE Batxilergoko 1. maila - Mikel de la Puerta, Jon Ander Millan eta Ander Urrutia



ALAIN ikaslea

Egia esanda, ez dut asko irakurtzen normalean, baina azken bolada honetan bizpahiru liburu irakurri ditut, *Asesinato en el Orient Express*, Agatha Christierena, eta *Sinsajo*, kasu. *Ebook*-ean irakurtzen dut, baina ahal dudan guztietan formatu normalean irakurtzea gustatzen zait, benetakoagoa da.

LEIRE ikaslea

Nik oso gustuko dut irakurtzea, egia esanda gutxien gustatzen zaidana da behartuta irakurri behar dudanean, ez dudanean zer irakurri aukeratzeko. Normalean gaztelaniaz irakurtzen dut, baina euskaraz eta ingelesez ere bai noizbehinka.



NATALIA irakaslea

Gustukoen ditudan liburuak historia liburuak dira. Irakurtzen ari naizen biak, Robert Louis Stevenson-en *La flecha negra* eta Victor Hugoren *El hombre quer ríe*, eta irakurri dudana azkena ere, *El señor de Ballantrae*, hau ere Robert Louis Stevensonena, historia liburuak dira. Liburuak beti paperean irakurtzen ditut, *ebook*-ak eta *tablet*-ak ez ditut gogoko irakurtzeko.



JOSEBA ikaslea

Niretzat irakurtzea gozatzeko gauza bat da, gustatzen zaidana eta behartu gabe egiten dudana. Egia esanda, gehiago gustatzen zait paperean irakurtzea, baina niretzat errazagoa, erosoagoa eta merkeagoa da *ebook*-a erabiltzea.



ERRAPEL irakaslea

Nik askotxo irakurtzen dut, asteko liburu bi edo, eta gainera, normalean batera irakurtzen ditut, bat historia liburu bat izaten da eta beste beste genero batekoa. Niri ez zait gustatzen *ebook* zera hori, nik beti paperean irakurtzen dut, etxean liburutegi pribatu antzeko zerbait dut, ia 3.000 libururekin.



RAMON ikastetxeko langilea

Irakurtzeaz hitz egiten badugu, beti da formatu normalean, *ebook*-ak eta horrelako gauzak oso deserosoak iruditzen zaizkit. Liburuez hitz egiten ari garela, justu orain irakurri ditudan azken hiru liburuak idazle berarenek dira, Ken Folletenak, bere Bigarren Mundu Gerrako trilogia irakurri dut azken bolada honetan, normalean hileko lau liburu irakurtzen ditut baina liburu horiek handi samarrak dira.



BOTIKAZAR BHI

Jone Benavente eta Helene Sarasola

Bidezko merkataritza

Botikazar BHIk urtero egiten duen ekintza da bidezko merkataritza, Kidenda eta Vicente Ferrer fundazioen bitartez.

Aurten, martxoaren 6an izan genuen jardunaldi hau praktikatzeneko aukera. Egun horretan gela guztiak pasatu ziren, era ordnatu batean, sarreran ipinitako saltokietatik eta han erosi, galde-
tu, hausnartu, ikasi... Aurtengo irabazia 1.316,35 eurokoa izan da, iazko kopuruarekin erkatuta

zertxobait gehiago, iaz 1.059,95 euro eskuratu baikenituen.

Bidezko merkataritza herriak garatzea eta pobrezia-aren kontra borrokatzea helburu duen konbentzionalen ordezkotza-sistema solidarioa da.

Ezaugarri nagusietako batzuk haurrak ez esplotatzea, ingurumena errespetatzea eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea dira, besteak beste; izan ere, ekoizle behartsuenak merkatura sartzeko baldintzak hobetzea eta pobrezia eta munduko desberdintasuna finkatzen

duen nazioarteko merkataritza-aren arau bidegabeak aldatzea du helburu.

Gainera, Kidendaren bitartez Hego Amerika, Afrika eta Asiatik ekarritako elikagaiak saltzeko aukera izan genuen. Aldiz, Vicente Ferrer fundazioak babestuta, Indiako emakumeek eskuz egindako artelanak saldu genituen.

Proiektu interesgarria izan da guretzat aurten beste herrialdeetako bizi-kalitatea zelakoa den ikusteko eta guk aukera dugunean, ahal dugun beste egiteko lurralde horien aurrerapena garatzeko.



Euskararen herriak

Otsailak 11 eta 13 bitartean IES Ibarrekolanda BHIko 2. Batxilergoko 29 ikaslek (eta bi irakaslek) Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroako paraje bitxi, polit eta ezagunak ikusi genituen.

Lehenengo egunean, Mutrikuko olatuen parkean egon eta gero, Zumaiako geoparkea bisitatu genuen. *Flysch*-ei buruz jakin beharrekoa jakin ondoren, Amaia eta Antton Gabilondo, Urdangarin, Zubizarreta, Argiñano, aitaren partetik, eta Igartiburu, Erentxun, Otegi eta Clemente, amaren partetik, edo Rafa ezkondu ziren baselizatik, San Telmotik, *flysch* atzealdean genituela, *selfie*-ak egin genituen.

Arratsaldean, behin sabela beteta Zarautzen, Andoainean Martxelo Otamendik, Berrria egunkariko zuzendariak, kazetaritzaren egoera zaila azaldu zigun. Eguna ondo amaitzeko, Hernaniko sagardotegi batean txotx egin genuen.

Bigarren egunean, Hondarribitik abiatuta Hendaiara heldu ginen itsasontziz, eguzkia lagun eta zorabiorik gabe. Han, Anton Abadiaren gazteluan Etiopia ere ezagutu genuen. Ezpeletan ogirik gabeko bokatak janda (ohar txiki bat: horra joatekotan eta zerbait erosteko nahia edukitzekotan ordu biak baino lehenago joan eta erosi, bestela

denda guztiak itxita aurkituko dituzue), Juliaren (hori bai gizona!) eskutik piper dastaketa jaso genuen. Gogoratzen dituzue Alex de la Igleciasen pelikula batean agertzen diren kobak? Sorgin eta akelarreen herria izan zen, hain zuzen ere, egun horretan ezagutu genuen azkenengoa.

Ostiralean, azken egunean, munduko zazpigarren gasna hoberena egiten duten tokitik, Zugarramurdiko Etxaleku gasnategitik, kontrabandisten bidea hasi genuen Sarara ailegatu arte. Hobeto esanda autobus gidaria deitu eta gure bila etorri arte, hasieran sei kilometroko ibilbidea izango zena hamabi kilometroko ibilbidea bihurtu baitzen. Hortik Donibane Lohitzunera joan ginen, bidaiaren helmugara. Herri dirudun horretan eta denda garestiz inguratuta, kalean bidaiako azken bokata jan genuen.

Nahiz eta hiru egun gutxi izan ezaguera berriak lortzeko eta gure arteko harremanak estutzeko, bidaiaria biziki gozatu genuen eta familia-giro ezin hobea egon zen. Luzeago izateko gogoz geratu ginela esatea soberan dago.







Arraiz mendira irteera

Joan den urrian Arraizera joan ginen Errekaldeberriko DBHko 1. Ziklokoak. Bertan jarduera piloa egin genituen. Jarraitu irakurtzen eta jakingo duzue zer gehiago egin genuen.

9:30ean atera ginen institututik eta Arraizera joan ginen, oinez, kirol osasuntsua egiteko.

Ibilbidetik paisaia aztertzen joan ginen. Atsedan bat egiteko hondartza berdean gelditu ginen eta gure ibilbidea jarraitu genuen.

Arraizera ailegatzean hamaiketakoa jan eta ekintzak egitera joan ginen. Hainbat gauza egin genituen: sakuetara jolastu, sokatiran

aritu, arrautza eta koilararekin nork arinago egin... eta denbora libreduki genuen.

Egia esanda, oso dibertigarria izan zen. Denok parte hartu genuen eta egun polita eta alaia izan zen. Ondo egon ginen euskaraz mintzatzen eta kirol pixka bat egiten.

Eta amaitzerakoan denok joan ginen etxera, oso pozik eta nekatuta amaitu genuen.

DEUSTUKO IKASTOLA

Irati Anteparra eta Maialen Izagirre

IRAKURKETA AITABITXI ETA AMABITXIAK

Deustuko Ikastolako ‘Aitabitxi eta Amabitxi’ proiektuaren helburua ikastolako zaharrenen eta gazteen arteko harremana handitzea da, eta beste alde batetik, irakurzaletasuna areagotzea.

Kurtso hasieran, DBH 3. eta 4. mailako ikasle bakoitzari LHko 1. eta 2. mailako ikasle bana ezarri zitzairen. Horrela, ume bakoitzak, heldu bat dauka, elkarri ipuinak kontatzeko.

Bi asterik behin elkartzen gara. DBHko 3. mailakoak, ostegunetan 3. pisuko gimnasioan elkartzen dira. 4. mailakoak aldiz, ostiraletan. Bi klase garenez, bat gimnasiaora doa eta bestea, lehenengo pisuko patiora.

Bikoteka egiten dugun irakurketaz aparte, umeekin egoten ez garen asteetan, beste proiektu mota bat lantzen dugu, hau da, DBHko 4. mailako talde txiki batek, umeen gela osoari ipuin bat kontatzea, ipuin kontalari lanetan.

Pertsonalki, oso ideia ona eta originala iruditzen zaigu irakurzaletasuna handitzeko. Hasieran, zaila egin zitzaigun umeekin konfiantza lortzea, baina denbora pasa ahala, erabateko konfiantza daukagu eta elkarrekin oso ondo pasatzen dugu, bai irakurtzen bai hizketan.



Mikel Goitia eta Paula Sardon

SALESIANOS DEUSTOKO MUSIKALA

Salesianos Deuston urtero DBHko 3. mailatik gorako ikasleek musikal bat egiten dute. Oldarra Gazte Taldekoek aurtengo musikalak aurkeztu dute. 10 funtzio egin dituzte otsailko eta martxoaren asteburuetan. Sarrerak dohainik dira eta laster bukatzen dira.

Urtero, kurtsoaren hasieratik otsailera arte asteburu elkartzeko dira emanaldia prestatzeko.

Nerabe askok parte hartzen du: aktoreak, dantzariak, koordinatzaileak...

Gaia urtero aldatzen dute. Ikasturte honetan Don Boscori buruz egin dute bere jaiotzaren 200 urteurrena delako. Besteetan, musikal ospetsuak egokitu dituzte (*Mamma Mia*, *Grease...*) edota eurek asmatutakoak (*Elketa*).



SALDE ABESBATZA

Idoia Arrieta, Ane Basaldua eta Lucia Sanmamed

Salesianos Deustuko kantu taldea da Salde abesbatza. 5. eta 6. mailakoek osatzen dugu koroa. Partaidea izatea borondatezkoa da. Asteazkeneko elkartzeko gara hileko ospakizunak eta bestelako ekintzak prestatzeko.

Esperientzia oso ona da, abesti berri asko ikasten ditugu eta denok parte hartzen dugu



dantzak asmatzen. Primeran pasatzen dugu entsaioetan!

Jendearen aurrean abestu genuen lehenengo aldian oso urduri geunden, baina orain lasaigo izaten gara.

Gaur egun gazteok askotariko sare sozialak darabiltzagu, eta gure etxeko nahiz lagunarteko bizitzan eragiten dute.

TWITTERREN ERAGIN KALTEGARRIA EGUN

Horren adibide argienetako bat Twitter da; hari esker, uneoro lagunek zer egiten duten, non dauden eta baita soinean zer arropa daramaten jakin dezakegu.

Dena den, segurtasun handiko plataforma digitala badirudi ere, Interneteko mundu zabalean ohikoa den legez, Twitterrek ezin du banaka profil guztiak benetakoak diren egiaztatu; beraz, gero eta kontu faltsu gehiago daude.

Hori aintzat hartuta, bereziki *mikroblogging*-a ahalbidetzen duten zerbitzuetan,

Twitterren moduan, kontuz ibili beharko gara eta ahal dugun guztietan gure pribatasuna mantentzeko profil pribatua erabil dezakegu, lagunei datuak ezkutatu.

Are gehiago, lagunek ez ezik, egungo gizarteko pertsona famatuenean ere datu pertsonalak jaso eta ematen dituzte, eta *tweet* deitutako ohar labur horiek gero eta erabiliagoak dira norberaren sentimenduak adierazteko, norbaitenganako kritikak egiteko, telebista entzunenak komentatzeko edota lagun eta ahaideekin argazkiak partekatzeke.

M. UNAMUNO BHI

GABON AURREKO AMESGAIZTOA

Tim Burtonek idatzitako olerki baten zinemarako moldaera da, 1993an Walt Disneyk kaleratua. Burtonek berak ekoitzi, eta H.Selick zuzendariaren laguntzaz olerki zaharrari bizitza eman zioten, *stop motion* teknika eta panpinak erabilia. 75 minutuko *thriller* musikal ikaragarria da.

Halloween egunean hasten da, Halloween Townen. Jack Skellinton hiriko erregeak, nekata, basora alde egingo du. Han, ate bat

aurkitu, sartu, eta Eguberria izeneko hirira iritsiko da. Eguberria ezagutu eta Halloweenen Eguberria ospatzea erabakiko du. Jack Santa Klaus izango da. Ez da erraza, ordea; Halloweeneko biztanleek ez dute Eguberria ondo ulertzen eta hor hasiko dira komeriak.

Filma itzela da. Istoria eta estetikari dago-kionez, Tim Burton petoa. Umetan ikusita pelikula bat, orain, irakurketa desberdina.

Diego Gonzalez



DIOS MIO, ¿PERO QUE TE HEMOS HECHO?

Olatz Silva

Pelikula hau P.Chauveronek zuzendutako komedia frantsesa da, 2014ko abenduan estreinatua. Guraso batzuek alaben senarrekiko aurreiritziak adierazten dituzte, frantses zuriekin ezkontzea nahi, eta horiek musulman bat, judutar bat, txinatar bat eta beltz batekin ezkontzen direlako.

Filma arrazakeriaren aurkakoa da, azke-

nean guztiek elkar errespetatzen dutelako eta konturatzen direlako dituzten estereotipo negatiboak ez direla egia.

Pelikula asko gustatu zitzaidan, barre egi-teaz aparte, ikasteko ere balio baitu. Hasieran arrazista dela pentsatu arren, amaieran, guztiz kontra dela ohartzen gara, kultur anitzen aldekoa.

Euskara bitxian idatzitako hamaika kartel topatu ditugu han-hemenka. Barre apur bat egin nahi duzue besteen hanka-sartzeekin?



Ogi osasuntsuena? Sexu organoa duena


Arrautz dislexikoak



Eta bikiak ez badira???



Debekatu eta kantatu aldi berean egiten direnean = DEBEKANTA



Burezur gogorrekoek ez dute kaskorik behar



Kultura ekitaldiak

ESKURTZE BHI

LITTLE HURRICANE kontzertua

Eguna: 2015/04/27

Ordua: 20:30

Lekua: Kafe Antzokia

www.kafeantzokia.com

SAN ANDREAS filma

Eguna: 2015/05/29

Lekua: Bilboko zinema guztietan

www.imdb.com

BERRI TXARRAK kontzertua

Eguna: 2015/05/09

Lekua: Santana 27

www.berritxarrak.net

MOTHERS AFRICA musikala

Eguna: 2015/05/12-13

Lekua: Campos Eliseo Antzokian

www.teatrocampos.com

DANTZA PLAZETAN dantza ikuskizuna

Eguna: 2015/05/30

Ordua: 11:30

Lekua: Ibarrekolanda

kulturabarrutik.net

IBILALDIA Bizkaiko ikastolen jai

Eguna: 2015/05/31

Lekua: Abusu-La Peña, Zabala eta

Miribillan

www.ibilaldia.eus

BOND AND BEYOND kontzertua

Eguna: 2015/6/25-26

Lekua: Arriagako Antzokia

www.teatroarriaga.com

BLACK REBEL MOTORCYCLE CLUB kontzertua

Eguna: 2015eko uztailak 9-11

Lekua: BBK Live jaialdia, Kobetamendi

www.bilbaobbklive.com/2015


Bilbon aurkitutako esaera

Bilatu Bilboko Euskadi plazako eraikin batean aurkitutako esaera.

Ados zaudete esandakoarekin?

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z

6 14 16 21 7 6 19 16 21 6 14 6 4 16 21 7




HIZKI-ZOPA: Udaberria

A	Q	E	M	A	K	E	B	V	U	B	P	C	A	L
S	X	C	J	T	K	B	G	N	O	K	N	T	D	I
H	W	T	Q	I	N	A	H	U	S	P	E	I	C	Z
F	H	R	N	B	Y	C	N	Q	Z	L	I	U	L	T
D	F	X	T	I	J	L	Z	O	O	K	I	V	J	O
E	G	S	R	R	X	N	X	X	A	C	I	E	I	R
E	R	O	L	I	F	T	T	A	L	E	R	G	I	A
C	K	D	A	X	E	I	R	S	Y	L	P	W	Y	Q
O	B	G	I	T	M	X	Y	U	E	U	C	S	M	T
Y	H	S	P	A	O	V	Q	Y	U	D	T	S	L	L
J	O	F	P	U	A	P	F	T	R	J	B	B	O	O
A	T	E	L	E	M	I	X	T	B	R	J	P	Z	Z
K	S	I	J	H	K	J	U	L	R	M	B	G	V	Q
W	B	B	L	L	S	Z	Y	H	K	Q	E	D	I	O
Q	I	D	D	E	G	G	J	Y	B	S	O	W	V	Y

ALERGIA – EGUZKI – ERLE – LIZTOR – MITXOLETA
 TXIMELETA – TXIBIRITA – URTXINTXA – LORE

Zein da saguak jarraitu behar duen bidea gazta jateko?



BILBOKO KALE, ENPARANTZA, AUZOEN IZENAK

Irati, Andres, Paola, Alejandra, Armando, Angie eta Sara gara, eta azken aldian egin dugun ekintza interesgarri baten berri ematera gatoz. Nola deitzen dira gure kale, auzo, enparantzak? Eta zergatik deitzen dira horrela?

Bilbo asko hasi da urteen joanean. Atzera begiratzen badugu, ikusiko dugu aintzinako Bilbo, Alde Zaharra eta hiru-lau kale gehiago zela. Gero hazten joan da etxe, kale, bide eta lantegi asko eraikiz. Honela, bada, auzo berriak sortu dira: Miribilla, Amezola, eta laster, Zorrotzaurre.

Galdetu al diozu inoiz zure buruari zergatik dituzten gure kaleek dituzten izenak? Bada, Zereginen Ikasketakook galdera hori egin genion gure buruei eta ikerketa hasi genuen interneten, udal-txean eta baita kalean bertan galdetuz ere.

Esan dezakegu orain arrazoi bat dagoela herri eta hirietako kaleen izenen atzean eta arrazoi

horiek oso desberdinak izan daitezkeela. Esate baterako, hiriko edo munduko pertsona famatuei egindako omenaldia: Fleming doktorea, Blas de Otero poeta...; gertaera historiko garrantzitsuren bat: Batalla de Padura, kasurako; eraikuntza baten izena: Elizalde, Eskolape...; lehenago bertan egiten zen lan edo ekintza ekonomikoren bat: Correo, Carniceria...; kaleen euren kokapena hirian: Artekale, Barrenkale...

Kalera irten eta horrelako galderak egin ditugu: "Badakizu zenbat kale dauden Bilbon? Badakizu zenbatek duten emakume izena? Esan iezaguzu, mesedez, emakume izena duen kale bat". Eta hara non, oso jende gutxi erantzun ziezaiokeen galdera honi. Oso

emakume gutxiren izenak baitaude kaleetan. Honek zer pentsa eman zigun!

Denok jakin dezazuen, Bilbok, 880 kale eta toki publiko ditu. 31k dute emakume izena, baina birjinak kenduta, emakume errealak, hezur-haragizkoak, 12 bakarrik dira!

Hona hemen adibide batzuk: Maria de Aguirre, Maria Diaz de Haro, Casilda de Iturrizar, Rafaela Ybarra...

Ez duzue uste, beste emakumeen bat gehiago ere egongo dela ohore hori merezi duenik?

Eta gure hurrengo erronka Euskal Munduarekin zerikusia duten kaleak aztertzea izango da!!!



ESKURTZE IKASTETXEA - Zereginen Ikasketetak
Irati, Andres, Paola, Alejandra, Armando, Angie eta Sara



Publizitate Grafika

Kalitatezko hizkuntza artistiko eta kultura adierazpide gisa, Arte Ederren garrantziaz jabetzeko eta beren gaitasunak garatzeko aukera ematen duen goi mailako zikloa dugu Publizitate Grafika.

Esan genezake, ardura profesionaletan sortzen diren arazo guztiak konpontzeko eta prozesu tekniko berrietara egokitzeko gaitasuna edukitzea dela gradu honen helburu nagusia. Familia profesional honen izenburuak dienez, diseinua ahalbidetzeko beharrezko gaitasunak eta ezagutzak eskuratzen dira. Bai tipografian, ikus-entzumenean, webean, proiektuetan, diseinuaren oinarrietan... arloetan bereziki. Hori adierazteko, egun arrunt bat azaltzen dugu hurrengo lerroetan: Astelehena. 7:45 dira, Ibarrekolandako ateak zabaltzen dira eta laugarren solairura igotzen gara. Bertan ateak oraindik itxita daude. Lagunak iristen ari dira. Denak logureagaz.

8:00. Klaseak hastera doaz, orain, Ikus-entzunezko klasea daukagu. Bakoitza bere ordenagailuaren atzean irakasleak esaten duenari adi. Proiektu bat daukagu eskuen artean, hiruhileko honetan bideo bat grabatzen ari gara, gaia libreka, eta bakoitzak zeri buruz grabatuko duen aukeratu ostean, *story-board* bat prestatu beharra dauka.

8:55. Proiektuak. Klaserik gogorrena baina bertan ikasten duzu gehien. Packaginak, logotipoak, kartelak... etab diseinatzen ditugu. Gai honek, beste gai guztiak bideratzen ditu.

ezberdinak ikusten ditugu, haien erabilpenak eta baita, hauetako batzuk idazten ikasi ere. Tipografia desberdinak erabiltzen, konposaketak egiten ditugu. Aurten, aldizkari bat maketatu dugu, honetan gaia ere libreka zen, eta bakoitzak nahi zuen erara sortu zuen.

11:15. Diseinuaren oinarriak. Izenak esaten duen moduan, ordu hauetan diseinatzeke behar diren oinarriak ikasten ditugu, koloreak nola erabili, konposizio orekatuak nola egin, etab.

12:10. Marketing eta publizitatea. Ordu honetan, publizitate kanpainak aztertzen ditugu, zein intenziorekin egin diren eta zer lortu nahi duten zehatzuz. Orain, bakoitzak kanpaina bat sortu behar izan du, benetako produktu baten edota asmatutakoren baten inguruan. Publizitate eta Ikus-entzunezko orduak nahastuta ditugu, Ikus-entzunezko orduetan web bat nola sortu ikasi dugulako, eta kanpainari web bat egin behar diogu.

Ikasketa honek hezkuntza-eskaintza aukera bikainak ematen dizkigu. Arlo hau bukatutakoan diseinatzaile, grafista edota publizitate agentzietan lan egiteko aukera izango duzu. *Freelance* edota aholkulari gisa ere lan egin genezake.



Ez genuen inoiz pentsa- tuko Ibilaldia antolatzerik

**Baina 2015ean hala tokatu da; eta, nahiz eta esperientziarik ez izan horrelako ospakizun handia burutzen, irrikaz beterik gaude edozer-
tan laguntzeko, informazioa emateko, esku bat botatzeko edota beste
edozein ekintza prestatzeko ere.**

Ibilaldia euskara sustatzeko gertakari bat da; ikastolek 1978an sortu zutena; dena dela, ez du beti zentro berak organizatzen, urtero herri desberdin bateko ikastola batek baizik. "Ibilaldia" hitzak esaten duen bezala, ibilbide bat dauka, eta, aurren, inoiz baino gehiago, ibilbide urbanoa izango da. Urtero milaka pertsona erakartzeko dituen jai hori, bide batez, proiektu konkretu bat finantzatzeko erabili ohi da, eta, urte honetan, areago oraindik, ikastola hau berria delako.

Igande batean egiten da; hortaz, aukera ezin hobe izango da egun zoragarri bat igarotzeko lagunekin; bidenabar, ikasleek ez ezik, gurasoek, umeek eta hirugarren adineko pertsonak ere parte hartu dezakete. Ibilaldiak hainbat eta hainbat pertsona biltzen dituzenez, Bilbo inoiz baino euskaldunago sentitu daiteke, eta, horrez gain, inguruko merkaturia suspertuko da ezinbestez. Gainera, ibiltzea eta euskaraz hitz egitea ondo etorriko zaigu guztioi.

Ibilaldia euskararen aldeko ekintza bat mundu osoan ezagutzen den hiri batean egiteak,

Bilbon alegia, erakusten du zer-nolako garrantzia duen euskarak. Gero eta dimentsio handiagoa hartzen ari da; beraz, gero eta jende gehiagok euskara ezagutuko du, eta euskararen hobe beharrean izango da.

Dena ez da arrosa kolorekoa, ordea. Ibilaldira datozen gazte asko parranda egitera eta barrenak alkoholez betetzera etortzen dira; horrenbestez, horrek Ibilaldiaren muina hondatzen du. Are gehiago, askok eta askok erdaraz jarduten dute barra-barra, euskararen garrantzia alde batera utzita. Hori gutxi balitz, hiria zikinkeriaz beteta geratzen da. Gainera, zarata ere ez da ahuntzaren gauerdiko ez-tula.

Horrelako ospakizun gehiago sortu beharko genituzke. Hainbat eta hainbat ikastetxek behar dituzte diru-iturriak eta urtean behin bakarrik egitea gutxi iruditzen zaigu. Hala ere, izugarritzko lana egiten da alaitz jende gehien hurbildu dadin eta, batez ere, egun on bat pasa dezaten. Azken finean, denon artean halako proiektua sustatzea ezinbestekoa dela deritzogu, askoren artean gauza handiak lortu daitezke eta.



DEUSTUKO IKASTOLA
Maider Zalbidea Pardo eta Olatz
Sagastui Laka



DEUSTUKO 99 NESKAK

Kaixo,
Gu Olatz eta Maider gara, Deustuko Ikastolako 99 taldeko kideak.

2007. urtean hasi ginen saskibaloian jokatzeko, zortzi urte genituen. Horrezkero, gauzak asko aldatu dira: jokalariak, entrenatzaileak, taldeak...

Gure lehenengo partidua gogoan dugu, Benjamin kategorian, Berrio-Otxoaren aurka aritu ginen. Haien zelaian jolastu genuen. Kristoren handia zen eta jokalari guztiak oso urduri geunden, baita entrenatzaileak ere, Iñigo eta Jon. Partidua nahiko kaskarra izan zen, eta emaitza oraindik txarragoa partidu osoa saskiratu gabe eman genuelako. Eskerrak Anek kanasta bat sartu zuela, markagailua honela utziz: 62-2. Galdu arren, gurasoek pintxo batera gonbidatu gintuzten hurrengo partidua gogotsu hartzeko.

Hasieran, 14 neska apuntatu ginen eta hurrengo urtean beste bi pertsona gehitu ziren entrenatzaile berdinekin jarraituz. Hirugarren urtean, beste entrenatzaile berri batzuk etorri ziren, Ane eta Lara, eta haiekin batera hiru taldekide berri.

Urte bat haiekin igaro eta gero, talde bat osatzeko neska gehiegi ginenez, bi taldetan banatzea agindu ziguten. Horren ondorioz, entrenatzaile bakoitzak talde batera joan behar izan zen. Orduan, talde bakoitzak izen

desberdina zuen: DEUSTUKO 99 A NESKAK, Ane entrenatzailearekin eta DEUSTUKO 99 B NESKAK, Lararekin.

Uda heltzearekin zegoenean, Larak Doña Casilda parkeko Tribasket txapelketan parte hartzerantz animatu gintuen. Taldetik animatu ginenak, postu on batean geratu ginen. Esperientzia polita eta desberdina izan zen.

Ikasturte berriarekin, entrenatzaile berriak etorri ziren. 2010. urtea oso garrantzitsua izan zen guretzat, kanasta handietara pasatu ginelako eta kategoriaz aldatu ginelako, Alebinetik Infantilerara. Bi entrenatzaileek, Sara eta David zuten izena. Haiekin urtebetez egon eta gero Sara joan egin behar izan zen, baina David eta Javi anaiak etorri ziren A taldera.

Kadete kategoriarako pasatu ginenean, berriz ere entrenatzaileak aldatu genituen, B taldea Martak hartu zuen eta A taldea Xabik. Urte hori A taldearentzat oso ona izan zen, taldeko giroa oso ona baitzen.

Kurtso honen hasieran, B taldeko hainbat pertsonak saskibaloia uztea erabaki zuten. Horregatik, B taldeko lau neska gure A taldera batu ziren, Xabi entrenatzailearekin batera eta Iñakiren laguntzaz, horrela erabaki baikenuen oso jatorrak zirelako, eta harreman bikaina genuelako haiekin, bai entrenamenduetan, bai partiduetan.

Nahiz eta zortzi urtez kirol hau praktikatzeko egon, gure lorpen bakarra guztiak batera giro on batean gogor jarraitzea izan da, eta hortaz harro gaude!



Sasoian sasoikoa

Negua eta hotza
 ahal dozu zuk ahaztu
 eguraldi hobea
 ta eingo gara poztu
 alaitasun honekin
 bertsoan kantatu
 udaberri honetan
 asko disfrutatu

Katalin Ortiz

Lore ta landareak
 hasi eiten dira
 eguzkien izpiak
 dute bai distira
 Aste Santua dator
 bagoaz herrira
 udaberria dator
 hemendik gutxira

Malen Ortiz

EUSKARAK 365 EGUN

euskaltzaleon auzotik
euskararen herrira

www.365egun.eu



euskaltzaleen
topagunea